

# Euskal AEk Europa 2020 Estrategiaren goiburuko bederatzi adierazleetatik zortzitan hobetzen du 2018an

**28-EB batez besteko europarrarekin alderatuz, bederatzi adierazle nagusietatik lauk balio hobeak dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan**

Eustatek landutako datuen arabera, hasierako egoerarekin (2008) alderatuz gero, 2018an, Euskal Autonomia Erkidegoak Europa 2020 Estrategiaren bederatzi adierazle nagusietatik zortzitan hobetzen du.

2010ean onartutako 2020 Estrategia Europarra Europar Batasunean hazkuntza adimenduna, iraunkorra eta integratzailea lehenesteko ezarri zen hamarkada honetan. Helburuak bost espezialitate-arlotan finkatzen dira, eta herrialde bakoitzak bere helburuak ezartzen ditu bertako errealitatea islatzeko eta helburu komunak lortzen laguntzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoa, batez ere, Hezkuntzari lotutako adierazleetan nabarmentzen da. Arlo horretan erraz lortu dira 2020rako finkatutako helburuak, bai 28-EBarentzat bai Espainiarentzat.

## Euskal AEko 2020 Europa adierazleak

| GAIA              | Adierazle                                                                                          | Hasierako egoera | Gaurko egoera |      | EB-28ko helburuak | Espainiako helburuak |
|-------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|---------------|------|-------------------|----------------------|
|                   |                                                                                                    | 2008             | 2017          | 2018 |                   |                      |
| Okupazioa         | <b>Okupazioaren tasa (20 urtetik 64ra) Guztira (%)</b>                                             | 71,0             | 70,0          | 71,8 | 75,0              | 74,0                 |
|                   | Okupazioaren tasa (20 urtetik 64ra) Emakumezkoak (%)                                               | 61,9             | 66,1          | 67,4 | :                 | :                    |
|                   | Okupazioaren tasa (20 urtetik 64ra) Gizonezkoak (%)                                                | 80,0             | 74,0          | 76,2 | :                 | :                    |
| I+G               | <b>I+Gko barne gastu gordina (BPGdaren %)</b>                                                      | 1,84             | 1,85          | :    | 3,00              | 2,00                 |
| Klima eta energia | <b>Berotegi-efektuko gasen emisioak, oinarri urtea 1990 =100</b>                                   | 120,7            | 96,3          | :    | 80,0              | 90,0                 |
|                   | <b>Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumo gordinen (%)</b>                        | 8,7              | 13,3          | :    | 20,0              | 20,0                 |
|                   | <b>Lehen mailako energia kontsumoa, oinarri urtea 2005=100</b>                                     | 102,3            | 83,7          | :    | :                 | :                    |
|                   | <b>Energiaren azken kontsumoa, oinarri urtea 2005=100</b>                                          | 104,4            | 95,9          | :    | :                 | :                    |
| Hezkuntza         | <b>Garai aurreko eskola-uzte tasa (18 urtetik 24ra) Guztira (%)</b>                                | 13,9             | 8,2           | 8,8  | <10               | <15                  |
|                   | Garai aurreko eskola-uzte tasa (18 urtetik 24ra) Emakumezkoak (%)                                  | 10,9             | 7,4           | 7,5  | :                 | :                    |
|                   | Garai aurreko eskola-uzte tasa (18 urtetik 24ra) Gizonezkoak (%)                                   | 16,6             | 9,0           | 10,0 | :                 | :                    |
|                   | <b>Goi-mailako hezkuntza maila (30 urtetik 34ra) Guztira (%)</b>                                   | 38,7             | 49,5          | 49,8 | 40,0              | 44,0                 |
|                   | Goi-mailako hezkuntza maila (30 urtetik 34ra) Emakumezkoak (%)                                     | 47,5             | 55,6          | 56,4 | :                 | :                    |
|                   | Goi-mailako hezkuntza maila (30 urtetik 34ra) Gizonezkoak (%)                                      | 29,6             | 42,5          | 42,4 | :                 | :                    |
| Pobrezia          | <b>Pobreziaren edo bazterketaren arriskuan dagoen biztanleria (Hurrengo hiruen bateratzea) (%)</b> | 17,9             | :             | 20,7 | :                 | :                    |
|                   | Lan-intensitate oso urridun familia-etxeetan bizi diren pertsonak (%)                              | 5,6              | :             | 9,1  | :                 | :                    |
|                   | Transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan dauden pertsonak (%)                            | 14,8             | :             | 17,7 | :                 | :                    |
|                   | Gabezia material larriak dituen biztanleria (%)                                                    | 2,7              | :             | 5,6  | :                 | :                    |

Iturria: EUSTAT. Egiturazko adierazleak Europa 2020

Okupazio-adierazlearen bilakaerak, okupazio-tasak, ere aurrerapausoak eman ditu 2008. urtearekin alderatuta, Espainiaren helburutik 2 puntu pasatxotara eta Europar Batasunarenetik hiru puntu pasatxotara kokatuz.

I+Gari dagokion adierazleak aurrerapen txikiagoak erakusten ditu, EBak finkatutako helburutik (BPGd-aren % 3) urrun kokatuz, baina ez hainbeste Estatu osorako helburutik (% 2).

Klimaren eta energiaren arloan, lau adierazleek erreferentziako urtean baino balio hobeak dituzte, baina oraindik urrun daude helburuetatik; gainera, 2014. urtearekin alderatuz, atzerapausoren bat ere eman da.

Finkatutako pobrezia-adierazlea, pobrezia edo bazterketa jasateko arriskuan dauden biztanleen datuak 2008koak baino okerragoak badira ere, 2014tik 2018ra ehuneko bi hobetu dira, % 22,7tik % 20,7ra pasatuz. 2018an, datu hori Espainiarena (% 26,1) eta 28-EBarena (% 21,7) baino baxuagoa da.

**Euskal AEko 2020 Europa adierazleen bilakaera, Espainiarekin eta EB-28rekin konparatuta**

| GAIA              | Adierazle                                                                                  | Euskal AE |                   | Espainia |                    | EB-28 |                   |
|-------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-------------------|----------|--------------------|-------|-------------------|
|                   |                                                                                            | 2014      | 2018              | 2014     | 2018               | 2014  | 2018              |
| Okupazioa         | <b>Okupazioaren tasa (20 urtetik 64ra) Guztira (%)</b>                                     | 66,4      | 71,8              | 59,9     | 67,0               | 69,2  | 73,2              |
|                   | Okupazioaren tasa (20 urtetik 64ra) Emakumezkoak (%)                                       | 62,6      | 67,4              | 54,8     | 61,0               | 63,5  | 67,4              |
|                   | Okupazioaren tasa (20 urtetik 64ra) Gizonezkoak (%)                                        | 70,3      | 76,2              | 65,0     | 73,1               | 75,0  | 79,0              |
| I+G               | <b>I+Gko barne gastu gordina (BPGdaren %)</b>                                              | 1,94      | 1,85 <sup>1</sup> | 1,24     | 1,20 <sup>1</sup>  | 2,03  | 2,06 <sup>1</sup> |
| Klima eta energia | <b>Berotegi-efektuko gasen emisioak, oinarri urtea 1990 =100</b>                           | 92,6      | 96,3 <sup>1</sup> | 115,9    | 121,8 <sup>1</sup> | 77,5  | 78,3 <sup>1</sup> |
|                   | <b>Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumo gordinen (%)</b>                | 13,9      | 13,3 <sup>1</sup> | 16,1     | 17,5 <sup>1</sup>  | 16,2  | 17,5 <sup>1</sup> |
|                   | <b>Lehen mailako energia kontsumoa, oinarri urtea 2005=100</b>                             | 80,6      | 83,7 <sup>1</sup> | 83,6     | 92,0 <sup>1</sup>  | 87,9  | 90,8 <sup>1</sup> |
|                   | <b>Energiaren azken kontsumoa, oinarri urtea 2005=100</b>                                  | 90,4      | 95,9 <sup>1</sup> | 80,7     | 86,0 <sup>1</sup>  | 89,3  | 94,1 <sup>1</sup> |
| Hezkuntza         | <b>Garai aurreko eskola-uzte tasa (18 urtetik 24ra) Guztira (%)</b>                        | 7,5       | 8,8               | 21,9     | 17,9               | 11,2  | 10,6              |
|                   | Garai aurreko eskola-uzte tasa (18 urtetik 24ra) Emakumezkoak (%)                          | 6,8       | 7,5               | 18,1     | 14,0               | 9,6   | 8,9               |
|                   | Garai aurreko eskola-uzte tasa (18 urtetik 24ra) Gizonezkoak (%)                           | 8,2       | 10,0              | 25,6     | 21,7               | 12,7  | 12,2              |
|                   | <b>Goi-mailako hezkuntza maila (30 urtetik 34ra) Guztira (%)</b>                           | 47,5      | 49,8              | 42,3     | 42,4               | 38,0  | 40,7              |
|                   | Goi-mailako hezkuntza maila (30 urtetik 34ra) Emakumezkoak (%)                             | 55,7      | 56,4              | 47,8     | 48,6               | 42,3  | 45,8              |
|                   | Goi-mailako hezkuntza maila (30 urtetik 34ra) Gizonezkoak (%)                              | 40,2      | 42,4              | 36,8     | 36,1               | 33,6  | 35,7              |
| Pobrezia          | <b>Pobrezia edo bazterketaren arriskuan dagoen biztanleria (Hurrengo hiru urteetarako)</b> | 22,7      | 20,7              | 29,2     | 26,1               | 24,4  | 21,7              |
|                   | Lan-intentsitate oso urridun familia-etxeetan bizi diren pertsonak (%)                     | 12,0      | 9,1               | 17,1     | 10,7               | 11,3  | 9,0               |
|                   | Transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan dauden pertsonak (%)                    | 18,5      | 17,7              | 22,2     | 21,5               | 17,2  | 16,9              |
|                   | Gabezia material larriak dituen biztanleria (%)                                            | 5,2       | 5,6               | 7,1      | 5,4                | 8,9   | 5,8               |

<sup>1</sup> 2017ko datuak

Iturria: EUSTAT. Egiturazko adierazleak Europa 2020

Batez besteko europarrarekin alderatuz, bederatzi adierazle nagusietatik lau balio hobeak dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan: pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden biztanleak, energia primarioaren kontsumoa eta hezkuntzako bi adierazleak.

Espainiarekin alderatuta, lau adierazle horietan datu hobeak eskaintzeaz gain, okupazio-tasan, I+Gako barne-gastu gordinen eta berotegi-efektuko gasen emisioan

ere datu hobeak ditu. Bai energia berriztagarrien kuotan bai energiako azken kontsumoan, Euskal Autonomia Erkidegoko balioak eskasagoak dira alderaketa egiten badugu.

### **Metodologiari buruzko oharra:**

2020 Estrategia Europarra, 2010ean Europako Kontseiluak onetsia, agenda komuna da hamarkada honetarako. Europako ekonomiaren egiturazko ahuleziak gainditzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta gizarte-merkatuaren ekonomia iraunkorra bermatzeko, hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea lehenesten ditu. Hona hemen bere bost **helburu** nagusiak:

- 1) 20-64 urte bitarteko biztanle europarren % 75ek enpleguren bat eduki beharko luke.
- 2) I+Garen barne-gastuak BPGd-aren % 3 izan beharko luke.
- 3) Klimaren eta energiaren arloetan “20/20/20” helburua lortu beharko litzateke: berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztu beharko litzateke, energia-kontsumoa % 20 murriztu beharko litzateke, eta energia berriztagarrien kontsumoak % 20ra iritsi beharko luke.
- 4) Eskola-uzteak % 10en azpitik beharko luke, eta belaunaldi gazteenaren % 40k, gutxienez, goi-mailako ikasketak burutuak beharko lituzke.
- 5) EBan, pobrezia-arriskuan 20 milioi pertsona gutxiagok egon beharko lukete.

Helburu horien jarraipena adierazle nagusi batzuen bidez egiten da; horiexek landu eta bildu ditu Eustatek Euskal Autonomia Erkidegoarentzat:

**Enplegu-tasak** adin-talde jakin batean (20 eta 64 urte bitarteko pertsonak Europa 2020 estrategian) enplegatuta dauden pertsonen kopurua adierazten du, adin-multzo bereko biztanleen guztizkoaren ehuneko gisa.

**I+Garen barneko gastu gordinen** sartuta dago irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen, Administrazio Publikoaren, Goi-mailako Irakaskuntzaren eta Enpresen ikerketa- eta garapen-gastua.

**Berotegi-efektuko gasek** —hauen artean daude karbono-dioxidoa (CO<sub>2</sub>), oxido nitrosoa (N<sub>2</sub>O) eta metanoa (CH<sub>4</sub>)— lurraren berotze globala eta klima-aldaketa eragiten laguntzen dute. Karbono-dioxidoen (CO<sub>2</sub>) baliokide bihurtzeak alderatzeko aukera ematen du eta berotze globalaren banakako eta guztizko ekarpenetan duten eragina zehaztea ahalbidetzen du. Adierazle horren barne hartzen dira nazioarteko abiazioa eta zeharkako CO<sub>2</sub>; baina ez dira jasotzen lurraren erabileraren emisioak, lurraren erabilera-aldaketa eta basogintza.

Energia-iturri berriztagarriak, —**Energia berriztagarriak** ere deitzen dira— naturalki berritzen diren energia-iturriak dira, adibidez, eguzki-energia, energia eolikoa eta marea-energia.

**Energia primarioaren kontsumoak** herrialde bateko guztikoz energia-eskaera neurtzen du. Energia-sektorearen beraren kontsumoa, energiaren eraldaketan (adibidez, petroliotik edo gasetik elektrizitatara) eta banaketan izandako galerak, eta azken erabiltzaileen amaierako kontsumoa estaltzen ditu.

**Energiaren amaierako kontsumoa** da azken erabiltzaileek, hau da, etxeek, industriak eta nekazaritzak kontsumitutako guztizko energia. Azken kontsumitzailearen atera heltzen den energia da, eta energia-sektoreak berak erabiltzen duena baztertzen du.

**Garaiz aurreko eskola-uzte tasaren** adierazlea honela definitzen da: gehienez, bigarren hezkuntzako heziketa duen eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasketarik edo formakuntzarik egin ez duen 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa.

**Goi-mailako hezkuntza-maila** honela definitzen da: unibertsitate-hezkuntza edo honen baliokidea —goi mailako lanbide-heziketa barne— amaitu duten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa.

**Pobrezia edo bazterketaren arriskuan dauden herritarren** adierazleak erreferentzia egiten die pobrezia-arriskuan dauden nahiz gabezia material larriak dituzten edo lan-intentsitate oso urria duten etxean bizi diren herritarrei. Pobrezia edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen guztizko kopurua pobrezia edo gizarte-bazterketako hiru moduetako bakoitzean dauden pertsonen kopurua baino txikiagoa da, egoera horietako bat baino gehiago aldi berean jasaten duten pertsonak behin bakarrik zenbatzen direlako.

**Lan-intentsitate oso urria duten familia-etxeetan bizi diren pertsonak:** Lan-intentsitatea % 20ko atalasearen azpitik duen familia-etxe bateko pertsonak dira.

**Transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan dauden pertsonak:** Pobrezia-atalasea honela dago finkatuta adierazle horretarako: errenta nazional erabilgarri baliokidearen medianaren % 60.

**Gabezia material larriak dituen biztanleria:** Ondoko bederatzi egoeretako lauri gutxienez aurre egin ezinik, baliabide faltaz, dauden pertsonak dira: 1) alokairua edo ohiko fakturak ordaintzea, 2) etxebizitza behar bezala berotzea, 3) ustekabeko gastuei aurre egitea, 4) haragia, arraina edo horien adinako proteinak dituzten jakiak erregulartasunez (bi egunez behin) jatea, 5) etxetik kanpo astebete oporretan pasatzea, 6) autoa izatea, 7) arropa-garbigailua izatea, 8) koloretako telebista izatea, 9) telefonoa izatea.

---

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62*